



LESAKAKO UDALA

Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
IFZ P3115200B

[Telf. 948637005](tel:948637005)

www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

UDALEKO OSOKO BILKURAREN OHIKO BILERA.

Organoa: Udalbatza.

Batzarra: Ohikoa.

Deialdia: Lehenengoa.

Eguna: 2022.12.14.

Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.

Tokia: Lesakako Herriko Etxeko Bilera Aretoan.

Bertaratuak:

Alkatea: Ladis Satrustegui Alzugaray jn.

Zinegotziak:

Mattin Etxabide Gartzia jn.

Maitane Rodriguez Etxabide and.

Iban Garro Alzuri jn.

Gabriel Txoperena Alzugarai jn.

Ioar Oteiza Goyeneche and.

José Luis Echegaray Andueza jn.

Ione Fagoaga Echarte and.

Iban de Prado Etxepeteleku jn.

Esteban Irazoqui Irazoqui jn.

Jose Maria Portu Ochoteco jn.

Ez da bertaratu:

Inor ere ez.

Idazkaria: M. Jose Larrayoz Ariztegui and.

2015eko ekainaren 19ko Osoko Bilkuran erabakitakoarekin bat, bilkura guziaren soinu-grabaketa eginen da, geroago udalaren web orrian zintzilikatzeko.

Alkate jaunaren aginduz bilkura hasi da, eta, deialdiaren ordenari jarraituz, ondoko gai hauei buruz

aritu dira:

1.- AZKEN BILKURARI DAGOKION AKTAREN ONESPENA.

Osoko Bilkurak, aho batez, onartu du, 2022ko azaroaren 9ko akta eta 2022ko azaroaren 16koa..

Azaroaren 16an egindako bilkuraren aktari eta lehenengo puntuari dagokienez, José Luis Echegaray Andueza jaunak esan zuen Udalaren azken oposizioaren kasuan Arrano elkartearen errekurtsio bat egon zela, baina ezetsi egin zela. Alkateak argitu du ez zela elkarte horren errekurtsorik izan, eta errekurtsioa hautagaietako batek jarri zuela.

Jose Luis Echegaray Andueza jaunak dio Amagoia Susperregui andreak jarri zuela. Alkateak erantzun du berak oposizioari buruzko informazioa baino ez zuela eskatu.

2.- 2022KO AURREKONTUAREN ALDAKETA: HASIERAKO ONESPENA (23/2022 ESPEDIENTEA).

Kontu-hartzaileak abenduaren 12an egindako txosten batean adierazten du beharrezkoa dela Udalaren 2022rako Aurrekontuaren aldaketa, ezohiko kredituaren bidez.

Jasotzen du 183.558,85 €-tako hornidura kontusail hauetan eta honela erabiltzeko:

- 1.6120.2269900 kontu-saila – Zalain Zokoren zehapen-ura: 801,35 euro
- 1.6210.2270900 kontu-saila – hondakinen bilketa: 1.500,00 euro
- 1.17100.6090000- pump-track partida: 86.224,60 euro.
- 1.34100.2260900 partida – kirola sustatzea, jarduerak: 3.500,00 euro
- 1.34220.2120000 kontu-saila – Oilartegi. Mantenimendua (Bizibide): 1.500,00 euro.
- 1.41400.4820000 kontu-saila – Cederna-Garalur. Elikadura-sistema: 1.575,64 euro.
- 1.43200.6410000 kontu-saila – ibilbide digitalak ezartzea: 6.207,30 euro.
- 1.45402.6190000 kontu-saila – Matxitenea zubia konpontzea: 47.284,01 euro.
- 1.45900.6090000 partida – aparkalekua: 9.534,80 euro.
- 1.45900.6090001 partida – Frain auzoko euri-uren drainatzea: 13.416,75 euro.
- 1.9200.6400001 kontu-saila – udal-artxiboaren sistema berria: 9.762,00 euro.
- 1.9200.6410000 partida – aplikazio informatikoak: 2.252,40 euro.

Gastua finantzatuko da 1.87000 partidarekin, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.

Aipaturiko txostenean adierazitakoa ikusita, eta kontuan hartuta Nafarroako Toki Administrazioako



LESAKAKO UDALA

Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
IFZ P3115200B

[Telf. 948637005](tel:948637005)

www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

Foru-legearen 271. artikuluan ezarritakoa (lege hori Nafarroako toki-araubidea eguneratzeko 11/2004 Foru-legeak aldatu zuen), Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:

1.) Hasiera batean onestea aurrekontua aldatzeko 23/2022 espedientea.

2.) Espediente hori jendaurrean edukitzea hamabortz egun baliodunean, aldeztuz aitzinetik Herriko Etxeko iragarki oholean jarriz, herritarrek edo interesdunek aztertu ahal dezaten eta egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak edo alegazioak egin ditzaten.

3.) Jendaurreko erakustaldian erreklamazio edo alegaziorik egiten ez bada, hasierako erabakia behin betiko onetsizat joko da, eta jendaurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko da indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespenerari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki-taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

3.- 2022KO AURREKONTUAREN ALDAKETA: HASIERAKO ONESPENA (24/2022 ESPEDIENTEA).

Abenduaren 12an kontu-hartzaileak eginiko txostenean, adierazten du beharrezkoa dela aurrekontuaren aldaketa diru sarrerengatik sortutako kreditu gehigarriaren bitartez, Udalaren 2022. urterako aurrekontuan.

Jasotzen du 8.378,60 €-tako hornidura kontusail hauetan eta honela erabiltzeko:

-1.92000.640001 partidan, Udal artxibo berriaren sistema: 5.000,00 euro.

-1.92000.6410000 partidan, aplikazio informatiboak: 3.378,60 euro..

Gastua finantzatzeko da dirusarrerako 1.7508012 eta 17508013 partidekin, Nafarroako Gobernuko dirulaguntzekin.

2022ko ekitaldiko aurrekontua gauzatzeko oinarrietako 12. puntuarekin bat etorriz, Udalbatzak aho batez erabaki du:

1.) Onestea aurrekontua aldatzeko 24/2022 espedientea.

2.) Erabaki hau Udalaren Kontu-hartzailetzari bidaltzea.

2.- 2022KO AURREKONTUAREN ALDAKETA: HASIERAKO ONESPENA (25/2022 ESPEDIENTEA).

Kontu-hartzaileak abenduaren 5ean egindako txosten batean adierazten du beharrezkoa dela Udalaren 2022rako Aurrekontuaren aldaketa, kreditu gehigarriaren bidez.

Jasotzen du 62.021,98 €-tako hornidura kontusail hauetan eta honela erabiltzeko:

-	1.01100.3100000	kontu-saila	-	mailegu-interesak:	2.419,06	euro
-	1.15330.2210300	kontu-saila	-	kaleak. ibilgailuen erregaiak:	1.200,00	euro
-	1.16900.219900-	auzolana		partida:	525,00	euro.
-	1.32320.2211000	kontu-saila	-	Irain eskola.garbiketa-materiala:	700,00	euro
-	1.33000.2260900	kontu-saila	-	kultura. Jarduerak:	10.000,00	euro.
-	1.45400.6920001	kontu-saila	-	Izotzaldeko auzo-bidea:	9.035,33	euro.
-	1.45401.6190000	kontu-saila	-	auzo-bideen kalteak:	25.000,00	euro.
-	1.92000.2210000	kontu-saila	-	energia elektrikoaren administrazioa:	3.000,00	euro.
-	1.93200.2500000	partida	-	zerga-kudeaketa:	3.442,59	euro.
-	1.93400.2270800	kontu-saila	-	Geserlocal:	6.700,00	euro.

Gastua finantzatu da 1.87000 partidarekin, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.

Aipaturiko txostenean adierazitakoa ikusita, eta kontuan hartuta Nafarroako Toki Administrazioako Foru-Legearen 271. artikuluan ezarritakoa (lege hori Nafarroako toki-araubidea eguneratzeko 11/2004 Foru-Legeak aldatu zuen), Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:

1.) Hasiera batean onestea aurrekontua aldatzeko 25/2022 espedientea.

2.) Espediente hori jendaurrean edukitzea hamabortz egun baliodunean, aldez aitzinetik Herriko Etxeko iragarki oholean jarritz, herritarrek edo interesdunek aztertu ahal dezaten eta egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak edo alegazioak egin ditzaten.

3.) Jendaurreko erakustaldian erreklamazio edo alegaziorik egiten ez bada, hasierako erabakia behin betiko onetsizat joko da, eta jendaurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko da indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespenerari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki-taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

5.-PEDRO ELGORRIAGA LASAGA JAUNAK SUSTATURIKO HERRI-ONDASUNEI BURUZKO TRANSAKZIO HITZARMENA.

2022ko apirilaren 28an egindako bilkuran, Pedro Elgorriaga Lasaga jaunak 38.179,00 m2-ko



LESAKAKO UDALA

Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
IFZ P3115200B

[Telf. 948637005](tel:948637005)

www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

azaleraren gainean sustatutako transakzio-hitzarmena onartu zen. Partikularrak 9.545,00 m² jasoko ditu (1. poligonoko 28. partzelaren 2.535,00 m²-ko gehiegizko azalera aldatu ahal izango da) eta 28.634,25 m² herri-eremurako izango dira.

Erabaki horretan akats bat dago partikularrak eskuratzen duen finkaren katalogazioari dagokionez, eta jasota geratu behar da partzela hori zuhaitzik gabeko baso-lurzorua dela eta ez zuhaitzia den baso-lurzorua; hala justifikatzen du 2022/11/22an erregistratutako Komunalen Zerbitzuaren txostenak (erregistro-zenbakia: 2022/4699).

Espedientean ageri da, halaber, Udaleko idazkariak 2022ko azaroaren 25ean egindako txosten bat.

Hori dena ikusita, Osoko Bilkurak, kide guztien aho bateko botoarekin, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 116.1 artikulua eta Toki Erregimeneko Oinarriari buruzko 7/1985 Legearen 45.2.n artikulua (toki-gobernua modernizatzeko neurriari buruzko azaroaren 16ko 57/2003 legearen bitartez aldatua) eskatzen duten Udalbatzako legezko kide kopuruaren gehiengo absolutua lortuta, honako hau erabaki du:

- 1.) Pedro Elgorriaga Lasaga jaunak sustatutako hitzarmen horren aldaketa onartzea, adierazitako moduan.
- 2.) Sustatzaileari jakinaraztea Herriko Etxera etorri beharko duela hura sinatzera.
- 3.) Aitzineko puntuan xedatutakoa betetakoan, Nafarroako Gobernuari bidaltzea errandako dokumentu guztien kopia izapidetuak, hark onespena emateko, Oinarrietako 14. artikulua dioenaren arabera.
- 4.) 2004ko apirilaren 30eko Osoko Bilkuran Udalak onartutakoaren arabera, herri-ondasunen transakzio-hitzarmenean sartzen den landa-lurreko metro koadroa 0,16 eurotan balioetsiko da.

6.-SUSTATURIKO TRANSAKZIO HITZARMENAK: ERAGINDAKO LURSAILAK KATASTROAN SARTZEA.

Lesakako Udalbatzak herri-ondasunen transakzio-hitzarmenak izapidetu ditu. Zehazki, besteak beste, 2017ko otsailaren 24an, 2017ko ekainaren 16ko eta 2020ko urriaren 29an egindako udako bilkuretan, Francisca Zubiria Apezteguia andreak, María Isabel Inda Juanena andreak, José Esteban Echeveste Apezteguia jaunak eta María Elena Azcarate Morales andreak, Antonio Echeveste Apezteguia jaunak eta

Juana Zayas Iturria andreak, Jesús María Tellechea Ochoteco jaunak eta José Martín Lanz Anchordoqui jaunak sustatutakoak onartu zituen.

Geroago, hitzarmen hauei dagozkien kontratuak onartuak izan ziren Nafarroako Gobernuko Nekazaritza eta Abeltzaintzako Zuzendari Nagusiaren azaroaren 14ko 882/2022, 883/2022, 884/2022, 885/2022 eta 886/2022 ebazpenen bidez, eta azaroaren 16ko 899/2022 ebazpenaren bidez.

Haren arabera, aipatutako Zuzendaritza Nagusiak onartu egin ditu Lesakako Udalaren eta hurrengo pertsonen arteko kontratuak:

-Francisca Zubiria Apezteguia andrea,

María Isabel Inda Juanena andrea

- José Esteban Echeveste Apezteguia jauna eta María Elena Azcarate Morales andrea

- Antonio Echeveste Apezteguia jauna eta Juana Zayas Iturria andrea

- Jesús María Tellechea Ochoteco jauna

- José Martín Lanz Anchordoqui jauna

Espedienteak azaroaren 17an ospatutako Mendi Batzordean aztertu ziren.

Orain, onespeneraren ondoren, notario eskriturak egitea eta hitzarmenaren xedea diren lursail horiek Jabetza-Erregistroan inskribatzea egokitzen da.

Baino, eskriturak egin aurretik, komenigarria da onartutako hitzarmenetan agertzen diren lursail horiek eta titulartasun partikularrekoak direnak, katastroan sartzea. Horrela, lortzen da, eskriturak egokituak gelditzea, azaleran eta mugetan, katastroan iada sartuak diren lursailletara.

Hori dena ikusita, Osoko Bilkurak, aho batez honako hau erabaki du:

1.) Nafarroako Gobernuko Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Zuzendari Nagusiaren ebazpenek onartutako transakzio-hitzarmenetik datozen katastro aldaketak onestea, eragindako lursailak katastroan sar daitezen, esaten diren neurriekin.

2.) Tracasa-ri eskatzea, katastroko aldaketa hauen tramitazioa, behar diren notario-eskriturak egin ahal izateko eta onartutako hitzarmenen ondorioz onartutako erregistroan izen emateak egiteko.

3.) Akordio hau halaber jakinaraztea hitzarmenetako titular guztiei eta Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko Nekazaritzako Zerbitzuaren Herrihurren Atalari.



LESAKAKO UDALA

Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
IFZ P3115200B

Tel. 948637005

www.lesaka.eus

udala@lesaka.eus

7.-JOSE LEON ECHARTE TAPIA JAUNAK ESKATUTAKO OIHAN APROBETXAMENDUA.

2022ko abenduaren 8an (4513. sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean) aurkezturiko eskaera aztertuta, Osoko Bilkurak honako hau erabaki du aho batez:

1.) Nafarroako Gobernuko Oihanaren Kudeaketa Zerbitzuaren aitzinean tramitatzea Jose Leon Echarte Tapia jaunak eginiko eskaera, honako aprobetxamendu hau egiteko: zuhaitz giztien matarrasa, Okurunbe parajea. Moztu behar den azalera 2 0.000,00m² –koa da. Katastroko 6. poligonoko 48., 61., 66., 67., 68., 69., 80., 81. eta 82. partzeleei dagokio.

2.) Lanak hasi baino lehen horren berri eman beharko dio Udalari, eta baita aprobetxamendua amaitu baino lehen ere, hark egiaztatu ahal izateko nola gelditu diren erabili diren bideak.

Halaber, ezarritako fidantza eta tasa jarri beharko ditu, eta horren zenbatekoa jakinaraziko zaio. Lanetarako kamioiak edo bertzelako makinaria astuna erabiliko ez duten partikularrek ez dute fidantza eta tasarik jarri beharko, beti ere hau horrela izanen dela eta sor ditzaketan kalteez kargu egingen direla idatziz ziurtatzen badute. Hau ez betetzea arau-haustea kontsideratua izanen da eta ondorengo isuna jarriko zaio: eskatutako metro kubiko bakoitzeko 3 €, eta gutxieneko isuna 300 €-koa izanen da, gainera sortu ditzakeen kalteez kargu egingen delarik baimen eskatzailea.

3.) Bideak ezin izanen dira egoera txarrean utzi. Hori gertatuz gero, hamabortz eguneko epea emanen zaio hariiek konpontzeko. Bertzela, Udalak berak moldatuko ditu, aprobetxamendua egin duen jabearen kontura.

Orokorrean, eguraldi euritsuarekin ezin izanen da egurrik garraiatu, baldin eta horretarako baimen espresa ematen ez bazaio.

4.) Pista berriak irekitzeko Udaleko berriazko baimena behar du.

5.) Eskatzaileari jakinaraztea, finkak komunala ageri direla udal katastroan, eta, ondorioz, erabaki honek ez duela deus adierazten lur-eremuaren jabetzari buruz.

8.- JOSE LEON ECHARTE TAPIA JAUNAK ESKATUTAKO OIHAN APROBETXAMENDUA.

2022ko abenduaren 15ean (4626. sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean) aurkezturiko eskaera aztertuta, Osoko Bilkurak honako hau erabaki du aho batez:

1.) Nafarroako Gobernuko Oihanaren Kudeaketa Zerbitzuaren aitzinean tramitatzea Jose Leon Echarte Tapia jaunak eginiko eskaera, honako aprobetxamendu hau egiteko: zuhaitz guztien matarrasa, Eleustrizo edo Endarako bidea parajea. Moztu behar den azalera 12.769,00m² –koa da. Katastroko 10.

poligonoko 120 lurzatiko H azpipartzelari dagokio.

2.) Lanak hasi baino lehen horren berri eman beharko dio Udalari, eta baita aprobetxamendua amaitu baino lehen ere, hark egiaztatu ahal izateko nola gelditu diren erabili diren bideak.

Halaber, ezarritako fidantza eta tasa jarri beharko ditu, eta horren zenbatekoa jakinaraziko zaio. Lanetarako kamioiak edo bertzelako makinaria astuna erabiliko ez duten partikularrek ez dute fidantza eta tasarik jarri beharko, beti ere hau horrela izanen dela eta sor ditzaketan kalteez kargu eginen direla idatziz ziurtatzen badute. Hau ez betetzea arau-haustea kontsideratua izanen da eta ondorengo isuna jarriko zaio: eskatutako metro kubiko bakoitzeko 3 €, eta gutxieneko isuna 300 €-koa izanen da, gainera sortu ditzakeen kalteez kargu eginen delarik baimen eskatzailea.

3.) Bideak ezin izanen dira egoera txarrean utzi. Hori gertatuz gero, hamabortz eguneko epea emanen zaio hariak konpontzeko. Bertzela, Udalak berak moldatuko ditu, aprobetxamendua egin duen jabearen kontura.

Orokorrean, eguraldi euritsuarekin ezin izanen da egurrik garraiatu, baldin eta horretarako baimen espresa ematen ez bazaio.

4.) Pista berriak irekitzeko Udaleko berariazko baimena behar du.

5.) Eskatzaileari jakinaraztea, finak komunala ageri direla udal katastroan, eta, ondorioz, erabaki honek ez duela deus adierazten lur-eremuaren jabetzari buruz.

9.-ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Zinegotzi guzietan pasatu zaie, posta elektronikoz, azken bi osoko bilkurretatik gaur arte Alkateak emaniko ebazpenen zerrenda (519/2022 ebazpenetik 580/2022 ebazpena arte). Ez dutenei, aipatu zerrenda horren paperean inprimaturiko kopia bana utzi zaie, bakoitzari dagokion erretiluan.

Jose Luis Echegaray jaunak adierazi du emandako ebazpenen artean aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko ezohiko prozesuari dagozkion lanpostu hutsen oinarriak daudela. Horiek ez dira jakinarazi eta datorren astelehenera arte ezingo dituzte eduki.

Alkateak esan dio atzo egin zela sindikatuekin azken bilera, eta oinarriak Ogasun eta Langileen Batzordean aztertuko direla.

Idazkariak gaineratu du horiek Nafarroako Gobernu Toki Administrazio Sailak prozesurako bidalitako ereduetan oinarrituta egin direla, eta osoko bilkura honek erabakitako atxikipen partzialaren



LESAKAKO UDALA

Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
IFZ P3115200B

Tel. 948637005

www.lesaka.eus

udala@lesaka.eus

baldintzetara egokitu. Gaineratu du gaur bidalitakoak baino ebazpen bat gehiago eman dela arratsaldean, Andra Mari egoitzako Batzordearen bileraren ondoren, zuzendaritzak eta gerentziak adierazi baitute euren lanpostu batzuk merezimendu-lehiaketa bidez ere bete behar direla, eta ez oposizio-lehiaketa bidez bakarrik.

Era berean, alkateak Andra Mari egoitzako aurrekontuaren honako aldaketa hauek onartzeko beharra planteatu du:

Udalbatzak, aho batez, bi gaiak presakoak direla onartzea erabaki du, eta jarraian aztertuko da:

-ANDRA MARI EGOITZA ERAKUNDE AUTONOMOAREN 2022KO AURREKONTUAREN ALDAKETA (3/2022 ESPEDIENTEA): HASIERAKO ONARPENA.

Abenduaren 13an kontu-hartzaileak eginiko txostenean, adierazten du beharrezkoa dela aurrekontuaren aldaketa kreditu gehigarria baten bitartez, Udalaren 2022. urterako Andra Mari Egoitza erakunde autonomoaren aurrekontuan:

Jasotzen du 14.405,88 €-tako hornidura hornidura kontusail hauetan eta honela erabiltzeko:

- 1.2314.48200	kontu-saila-	Nafarroako Lar Egoitzen Elkartearen kuota:	37,02	euro.
- 1.2314.6230001	kontu-saila-	materiala erostea:	2.950,28	euro.
- 1.2314.6230002	kontu-saila-	instalazioak:	889,56	euro.
- 1.2314.6250000	kontu-saila-	altzariak:	9.729,02	euro.
-1.9310.22630	kontu-saila-	banku-komisioak:	800,00	euro.

Gastua gastu finantzatuko da dirusarrerako 1.8700001 partidarekin, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.

Aipaturiko txostenean adierazitakoa ikusita, eta kontuan hartuta Nafarroako Toki Administrazioiko Foru-Legearen 271. artikuluan ezarritakoa (lege hori Nafarroako toki-araubidea eguneratzeko 11/2004 Foru-Legeak aldatu zuen), Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:

- 1.) Hasiera batean onestea Andra Mari egoitzaren aurrekontua aldatzeko 3/2022 espedientea.
- 2.) Espediente hori jendaurrean edukitzea hamabortz egun baliodunean, aldeztuz aitzinetik Herriko Etxeko iragarki oholean jarri, herritarrek edo interesdunek aztertu ahal dezaten eta egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak edo alegazioak egin ditzaten.
- 3.) Jendaurreko erakustaldian erreklamazio edo alegaziorik egiten ez bada, hasierako erabakia behin betiko onetsizat joko da, eta jendaurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko da indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespenerari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki-taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

-ANDRA MARI EGOITZA ERAKUNDE AUTONOMOAREN 2022KO AURREKONTUAREN ALDAKETA (4/2022 ESPEDIENTEA): HASIERAKO ONARPENA.

Abenduaren 13an kontu-hartzaileak eginiko txostenean, adierazten du beharrezkoa dela aurrekontuaren aldaketa diru sarrerengatik sortutako kreditu gehigarriaren bitartez, Udalaren 2022. urterako Andra Mari Egoitza erakunde autonomoaren aurrekontuan:

-1.2314.62500 partidan, altzariak, 2.667,02 euro.

Gastua finantzatuko da dirusarrerako 1.75080 partidarekin, Nafarroako Gobernuko dirulaguntzekin.


Udalbatzak aho batez erabaki du:

- 1.) Hasiera batean onestea Andra Mari egoitzaren aurrekontua aldatzeko 4/2022 espedientea.
- 2.) Erabaki hau Udalaren Kontu-hartzailetzari bidaltzea.

10.-OSOKO BILKURAREN KONTROL-JARDUERA. ESKARI ETA GALDERAK.

Ez dira izan.

Aipaturiko eguneko ilunabarreko zazpiak eta hamabost minutuak direla, eta eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, alkate jaunak akabatutzat eman du bilera. Nik, idazkariak, egiaztatu egiten dut.



The image shows a circular official stamp of the Government of Navarre (Gobierno de Navarra) in blue ink. The stamp contains the text "LESAKAKO UDALA" at the top and "NAFARROA" at the bottom, surrounding a central coat of arms. A handwritten signature in blue ink is written over the stamp and extends to the right.